

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Mallorcako Dislexiaren Batzordean izan da Nafarroa

Topaketa Espainiako eta Iberoamerikako dislexiaren Kongresuaren baitan burutu da

Ostirala, 2018.eko azaroak 23

Nafarroako Gobernuo Hezkuntza Departamentuak Dislexiaren Espainiako batzordean parte hartu du, Espainia eta Iberoamerikako 9.Kongresuaren harira eginiko komisioan, hain zuzen ere. Ordenazio, Orientazio eta aukera berdintasunaren zerbitzuko zuzendaria den Ander Domblás izan da Mallorcako bilkuran, autonomia-komunitateetako beste ordezkariekin batera. Bertan, komunitate bakoitzak dislexia duten ikasleen beharrei erantzuteko hartutako neurriak elkar banatu dituzte.



Domblás zerbitzu buruak bere mintzaldian adierazi du Nafarroako Hezkuntza Departamentuak duen Aniztasunaren Arretarako Planak aurreikusten dituen neurriekin zein baliabideekin erantzuten diela dislexiadun ikasleen beharrei. Gaineratu duenez, 2018-19an ikasturte hasieran irakasleei ematen zaien jarraibideetan, lehen aldiz sartu egin da dislexia duten ikasleen beharrei lantalde osoak erantzun behar izatea “era horretan antolakuntzaren hobekuntza eta ikasle bakoitzak duen behararen antzematearen norabidean urrats bat eman ahal izan dugu.”

Kongresua

Dislexiaren Batzorde nazionala bukatutakoan hasi da Espainiako eta Iberoamerikako 9. Kongresua. Aste buru osoa hartuko du bigarren honek eta dislexia eta hezkuntza hainbat ikuspuntutik aztertuko dute. Ikertuko dituzten gaien artean hezkuntza inklusiboa, ikasteko zailtasun zehatzak, hezkuntza ereduak, neurodidaktika, etab. Gainera, familiek ere euren tarte propioa izanen dute euren bizipenak ezagutzera eman eta dislexia kasuetan interbentzioa nola egin ikasteko tailerretan parte hartu ahal izateko.